
RAFAEL GAZTELU

FRANZIZKOTARRA

GERNIKA

Gernika!, erri-aginduz zara
Euskaldunen Jauretzea;
asaba zaren batzar etxetik
dator Euskal izatea.
Aretx ondotik, sakon ta sendo
sortu da gure legea;
Gurutz ikurrak eutsi dau beti
Eusko semeen fedea.

Nundik sortzen da erri baten izen ona? Erria al da bere semeai izen ona emoten dautsena? Ez, ba. Giza-seme ospetsuak dira erri bat gorengo maillan jartzen dabenak. Ba'dau Gernika'k, mundu-zabalera guztian, entzute ona ta goragarria. Nork ukatu bere izen ona asaba zaarren, lege-gizonen, eta beste seme argien birtartez datorkiola?

GIZON BARRIA

Mixiolarien egin-gaia ez da bakarrik Kristo'ren Barri Ona ots egitea, eta bere Elizaren oiñarriak jartzea. Kristo'ren Barri Onak gizon barria gura dau, gizonaren biotz-barritzea. "Ez dago mundu barririk, gizon barria bagarik".

Zelan burutu ori? Naikoa lan! Egin-gai ori betetze-ko, Jaunaren aurrean, sakonkiro ausnartu bearko ditu mixiolariak berba argi oneik: "Zure buruaren kezka izatea ez da aski. Zu parte bat zara, atal bat, besterik ez. Batasun aundiago batean sarturik zaude. Elkarreki-ko lokarriak ditugu. Danok nabaritzen degu gure barruan besteenganako ongi-naia. Eta jokera au izadiak berak emanik dakargu. Lagunartean bizi gara, gizar-tean. Gizartea da gure etxea. Eman, iñoiz artzerik nai baldin badezu". (Aita L. Villasante, Jainkoa, 82).

Zer ikusten dau aita Rafael'ek bere begien aurrean? Gizarte eta lagunarte kaxkarra. Ezin sinistu, ikusi barik, emengo basatien izakera eta bizikera gogor eta latza. Emen ez dozu ikusiko gure arteko aukera eta erosotasunik. Bai, zera.

Zer egin? Lenengo ta bein bere gogo ta asmoa, bere barrua ta izakera osoa aldatu bearko dau. Zer dala

ta? "Guztientzat guzti egin naz, onelantxe batzuk irabazteko".

Nundik asi? Zer izango da bere lenengo eginbidea? Persona baktxari bere nortasuna, gizadasuna eta kristautasuna erakutsi eta bizi eragin. Era berean sendi bizi-tza, bere oneratu. Etxe-gabe, eta erri gabe bizi diranak, Kristau alkartasunera ekarri. Ez da ori gero geure opillari putz egitea.

ETORKIZUN BARRIA

Aita Rafael, Satipo errian auzotu, eta bertan biziko da berrogeta sei urte buruan, Ukayali aldeko mixiolarien buru eta arduradun izanik urte askotan.

Erri baten aurrerapenak eta etorkizunak oso bearrezkoak ditu Elizak, ikaste-etxeak, batzar-tokiak, osasun-etxeak, etabar. Gogo beroz jokatu dau onako erri-lanak eta erruki-egintzak egiten.

Eta, au bai, benetan arrigarria! Aita Irazola'gaz batera, bidegintzari ekingo dautso, Satipo, Okipa, Obenteni eta Atalaya errien artean auto-bideak zabaltzen. Auto-bide onen inguruetan lurak erritu egingo dira, bai, eta lekuri egokienetan egokituko ditu baselizak eta mixio-etxeak. (1917)

Izerdi patsetan eta neke gorrietan egindako etxeak eta bideak, ikaragarritzko lur-ikaraz, apurtuta eta erdibituta geratuko dira. (1947). Aita Rafael'en barruak zartada galanta artuko dau. Nork ez? Okilduta geratuko ete da? Bai zera. Barriro be, jo ta ke, ekingo dautso etxe eta bide barritzeari. Larrialdi gorri ontan ondo baño obeto erakutsiko dau eusko seme baten adorea, kemena ta sendotasuna.

Emen, bai, esan bearko Arantzazu'ko poemak dakarrena:

"Suak indarrak ba'ditu ere
euskaldunak erredoble".

Azkenik, gaixo zital batek jota, Lima uriburuan, Jaunaren besoetan, betiko saria ta atsedena artu eban. (1962). Gernika'ko seme argia, eusko seme leiala, Kristo'ren eta erriaren alde, eten бага, jokatu eban gure aita Rafael, amai bako bizian gerta bedi.

AITA URIGUEN'TAR ZENON